AMESLARIOK... ZER BERRI?

Herri Ametsa Ikastola
Ikastola txikia, familia handia

ASTEKARIA: 47. atala | DATA: 2025/10/03

GUREAN

ZINEMALDIA

Zinemaldiak zazpigarren arteaz gozatzeko aukera eskaini zigun pasa den astean. Hayao Miyazaki Donostia Saridunaren "Totoro auzokidea" pelikula berreskuratu zuten Zinemaldiak, Euskadiko Filmategiak eta Donostia International Physics Center-ek (DIPC) eta milaka ikasleri eskaini zioten euskaraz, Belodromoko pantaila erraldoian. Herri Ametsako LHko ikasleek aukera ez zuten galdu eta Belodromoan elkartu ziren beste 13.000 ikaslerekin batera. Guztira, 80 bat ikastetxek hartu zuten parte Zinemaldiak urtero ikasleentzat antolatzen duen ekintzan. Programazio horrek, zentzu ludiko eta zinematografikoaz harago, balio pedagogikoak zabaltzea du helburu.

GURE INGURUAN

AGORREGIKO BURDINOLA ETA ERROTAK

NOIZ: URRIAK 4TIK AZAROAK 2RA ARTE

Agorregiko burdinola eta errotak Iturraran Parketxetik hurbil ditugu.
XVIII. mendean berreraikitako instalazio hidraulikoari jarraituz zaharberritu zituen Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Sailak eta gaur egun martxan ikus daiteke.

Bisitak euskaraz: 11:15
Bisitak gaztelaniaz: 12:00

KILOMETROAK 2025

ZER PROPASATZEN DUZU?

Hemendik aurrera hauxe izango da zuen txokoa. Familia, ikasle, irakasle eta langile guztiek hartu dezakete parte astekarian. Edozein abisu, iragarki, proposamen edo plan guri helarazi eta astekarian argitaratuko dugu. Denon artean bizirik mantenduko dugu proiektua!

ZUEN PROPOSAMENAK HONA BIDALI:
melvira@herriametsa.eus

INFO+